


Hondakinen biltzeko erreformaren lehen emaitzak

- Hona hemen, 2017ko lehen sei hilekoarekin alderatuta, **hondarkin birziklagarrien zamak izan duen bilakaera:**

- Berinek berdintsu segitzen dute
- Paperek %32 gora egin dute
- Enbalaje birziklagarriek %30 gora egin dute

2017ko sei hilekoarekin alderatuz, etxeko hondakinen zamaren joera alderantzizkoa da: %23 hondakin larri gutiago! Honela, 2017an biztanle bakoitzak 23 kg ezartzen zuelarik edukiontzietan, urte bat berantago 15 kg besterik ez du ezarri. Honela, 2017an biztanle bakoitzak 23 kilo etxe-hondarkin ezartzen zuelarik edukiontzietan, 15 kilo baizik ez du ezartzen urte bat berantago.



- Herritarren indarrei esker, etxeko hondarkinen tona kopurua apaldu da, eta hondarkin birziklagarrien tona kopurua goiti joan da.** Jende gehiago etorri da hondarkintegietara (adibidez Baigorriko hondarkintegian %21 sartze gehiago izan dira apiril erditsutik). Horrek erakusten du parte hartze handiagoa bereizketan eta beraz hondarkinen balioztatzean. Hondarkin bakoitzak bere lekua hobeki atxematen du !
- Donazarreko hondakintegi berriak** emaitza baikorrak erakusten ditu hondakinen baloratze mailan, izan dadin kantitate edo kalitatean. Honen espazio handiari esker, erabiltzaile gehiago errezibitzen ahal dira, eta agenteek erreskiago begiratzen dute hondakinak nola sailkatuak diren. Izan ere, jendeek, agenteek kontseilaturik, haien hondakinak sailkaturik pausatzen dituzte lurrean, hondakin mota bakoitzarendako eginak diren kutxatiletan. Lurreko hondakintegia izanki, agenteen eta erabiltzaileen segurtasuna gehiago errespetatua da. Gune berri honen funtzionamenduak eta erabilpenak erabiltzaile eta agenteei antolaketa berria eskatzen dio, erreforma osoarendako bezala.
- Sailkapenaren emendatze handiari esker, bilketa gune batzuk laster betetzen direlarik **bilketa langileek ahaleginak egiten dituzte lehenbailehen usteko, denon egunerokoa hobetzeko.** Lehen urte hau egokitzapen garaia izanen da langile, herri eta biztanleentzako.

Sei hilabete hauek agerian ezarri dute jendeak hondakinen bereizteko beharraz jabetu dela. Bide horretatik segituz, Garazi Baigorri lurraldeko biztanleriak XXI. mendeko erronka eramanen du: ingurumena zaindu belaunaldi berrientzat.